

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Angel Irigarai Imaz

*Donostia,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



Iruñean jaio zen, baina Donostiako Gros auzora joan ziren bizitzera bost urte inguru zituenean. Artean mutikoa zela hil zitzaion ama; donostiarra zen. Aita, berriz, nafarra: Beran jaiotako auriztarra; medikua eta idazlea zen Aingeru Irigarai, haren aita Fermin Irigarai "Larreko" bezalaxe. Bide bera jarraitu zuen Jose Angelek ere: La Sallen batxilergoa ikasi ostean, Iruñera joan zen Medikuntza egitera.

Donostiako Contadores lantegiko medikua izan zen urte askoan. Baina kulturgintzan egin duen lanarengatik da ezagunagoa. Batez ere poesia idatzi du, baita narrazioak, abestiak eta saiakerak ere. Gainera, makina bat elkarte eta ekimenetan parte hartu du: Ez Dok Amairu, Aranzadi zientzia elkarte, Nafarroako ikastolak, Eusko Ikaskuntza, Bilboko Kafe Antzokia... Oteiza fundazioko kidea da, Pamiela argitaletxeko editorea eta ohorezko euskaltzaina. Nafarreraz hitz egiten du, etxean ikasitako euskara.

Zintak

DON-125

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-06-10
- **Iraupena:** 86 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Agirre, Eli - Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Bost urtetatik Donostian; Nafarroari lotua

- **Erref:** DON-125/002
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:00:13. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Iruñean sortua, Donostian bizi izan da. Aitaren aldetik Auritzen du jatorria. Amaren familia. Gerra ondoren joan ziren Donostiara bizitzera, berak bost bat urte zituela. Baina beti gorde zuen lotura Nafarroarekin, baita hizkeran ere. La Sallen egin zuen batxilergoa, giro erabat erdaldunean. Etxean gorde zuten euskara.

2. Aitaren eskutik ezagutu zuen giro euskaltzalea

- **Erref:** DON-125/003
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:05:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Donostiako kultur giroari lotutako lehen oroitzapenak, aitarekin. Foru Aldundian zebiltzanak aipatzen ditu. Koldo Mitxelena. Jorge Oteiza. Euskal kultura oso ezkutuan zegoen.</p>

Transkripzioa

-Eta lehenengo oroitzapenak, Donostiari lotuak, dire, ba batzutan ni, ba ez naiz oroitzen, hamabost urtetan, hamasei, zenbaitetan, ba aita lagunduz Diputaziora yoaten nintzen. Han zegoen Seminario Julio Urkijo, Julio Urkijo zenaren liburutegia han baitzegoen. Eta han, artxibero zegoen garai haietan, Fausto Arozena eta Jose Artetxe, gero etorri zen Milagros Bidegain, baiña garai haietan, batez ere, Jose Artetxe, Fausto Arozena eta Maiz han zebillena beti bere ikerketak eta estudiok eiten, ba Luis Mitxelena, orduan Luis Mitxelena zen, Koldo Mitxelena, eta beste hainbat, ez? Eta ordun, ni batzutan ba, esaten zialako ba bertara yoateko bile edo, zerbaittere ba yoaten nintzen eta han entzuten nituen, Mitxelena, nik ordun ezagutu nuen, eta Artetxe eta hoiek denak; eta han ezagutu nuen Jorge Oteiza're bai. Ze Jorge Oteiza nik ez dakit zenbat urte izan nituen, hamasei bat urte edo horrela, batzutan agertzen omen zen eta agertzen zien hoietan trumoa bezala jartzen zen, ekaitza bezala, ba diskusiotan eta beti sustatuz eta akuilluarekin zetorren eta Mitxelena sutan yartzen zen, bere etimologia eta bere ikuspegia zela ta. Neretako oso harrigarria zen, baiña, orduan oroitzen naiz ezautu nuela eta, euskal mundu hori neretzat, nola familian aitarendik bizi nuen eta aitaxirengandik eta hoi dena, oso naturala eiten zitzaitan, baiñan mementu berean, erran behar da eskizofrenia moduko batian bizi giñela, ze bestaldetikan kanpuan ez zen existitzen

euskara, ez? Nahiz eta lagunartean, kuadrilla, gaztetxoaren artean, hamalau urtetan, hamabostetan, ba denek bazekiten zure euskalzaletasuna, edo zure euskararekiko ez dakit zer edo, baiñan oso mailla apalean, apalean ez?

3. 'Umeen Deia', euskara eskoletan sartzeko ekimena

- **Erref:** DON-125/004
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:09:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Iruñean ikasi zuen Medikuntza. Han ere ezagutu zituen euskaltzaleak. Aita Felipe Murietakoa kaputxinoa eta Nafarroako eskoletan euskara sartzeko ekimena, ipuinekin; Umeen Deia aldizkaria. Berak hartu zuen haren lekukoa. Zabalkundea.</p>

Transkripzioa

- Gero, gero hasi nintzen ikasketak eta medikuntza egiten, Nafarroan, hain zuzen. Berriz ere Iruñean, ez? Eta ya ordurako, ba nola harreman hoiek eta ya banituen, ba ordurako nahiko, ba ez dakit trabatua nintzen euskalgintzaren zenbait gauzetan, mailla apal batean, nere adiñean eta, baiña zenbait. Eta batez ere, beharbada Nafarroan, ze hemen, Gipuzkoan nik ezagutzen nituenak ziren, ba, haundi-maundi batzuk eta yakintsu batzuk eta, aita-ponteak, euskararen aita-ponteak, baiñan han, aldiz, ziren neretako errexagoak, xamurragoak, Diez de Ulzurrun, bai midikua eta bai apez, Satrustegi, Kortez Izal ta hoiek, eta hoiek ari ziren, ba, euskarazko esamiñak egiten herrietan, bertsolari-txapelketak antolatzen. Eta hoiaren artean ere ezautu nuen kaputxino bat, oso xelebrea, ordurako ere nik ezagutzen nuen aitaren bitartez, baiña personalki ez, eta segituan, han, Iruñean hasi nintzen segituan, ba, ezagutu nuen Aita Felipe Murietakoa. Murieta da herrixka bat Lizarra ondoan dagona, hua erdalduna zen, berez, sortzez, baiña gero euskaraz ikasi zuen, eta izan zuen ideia bat garai haietan. Pensa, ari gara berrogeita hamarreko hamarkadan, berrogeita hamarreko hamarkadan. E, euskara erabat debekatua, eskoletan ez zen deus, eta ordun bera hasi zen, kaputxino zenez eta txistularia ere bazen, musikaria ere bazen, aski ezaguna. Ba hasi zen, eskoletan Nafarroko zenbait eskoletan eta irakasleekin eta harreman personalari esker, ba, ikasleak traba zitezen, treba zittezen euskeraz idazten, ba igor zizatela ipuin bat, kontakizun bat, nahi zutena, eta ariketa hori oso mesedegarria izan zen, ze horren bitartez euskara eskolan ere sartzan zen, nolazbait ere. Eta gaiñera, haur haiek eta, bere hizkuntza inprimatu ta gero, publikatzen zen, orritxo bat deitzen zen "Umeen deia". Eta "Umeen deia" hori publikatu zen gero, liburu batean, ba, garai hartan bildutako ipuin guztiak dakartzana. Eta oso lan gogoangarria da, ze urtetan egoten zen ba, eskolaz eskola hori biltzen, hurrek ikusten zuten bere izena eta ipuin baten eta publikatua eta horrek autoestimarako sekulako mesedea egin zion. Nik ezautu nuen, bera [...] zabilen, kaputxinoa eta ordun, beste,

Iruñeko beste Rafael Goñirekin, apeza ere bai, eta hoiekin ba laguntzen hasi giñen eta nik gero hartu nuen horren kudeaketa eta segitu nuen, ez? Bera bizi zela, eta bera hil zenean ere bai. Eta gero gazten esparrura ere zabaldu genuen, gaztetxo, hamalau-hamabost urtetara ta hoietara, ez bakarrik eskola, lehenbiziko eskola, eta ez bakarrik Nafarroan. Ni segituan, ba, hasi nintzen baita ere beste harreman batzui esker, ba Ifarraldean, Lapurdiko, eta hainbat badire Lapurdikoak, Bizkaikoak, Gipuzkoakoa ere bai, Donostiakoak. Eta hor agertzen dire liburu hortan, hor daukat, nahi baldin baduzu erakutsiko dizut, agertzen dire gero famatu izan diren persona batzuk. Famatu esan nahi dut, batzuk idazleak direlako, beste batzuk kazetari ezagunak, beste batzuk artistak etabar, garai haietan nonbait, ba, hori eskola hoietan, Gipuzkoan izan edo, Lapurdin , Uztaritzen edo Iruñean izan, edo Lizarran edo herrixka batean izan, ezta? Eta han Nafarroan hoiekin, ba, segida hartu nuen eta ordun joaten nintzen toki hoietara, eta, ba, orduan gehiago tratatu nintzen. Eta ondorioz, Donostiara etortzen nintzenean, ba, oporretan eta hoi dena, hemen ere gutxika-gutxika, ba, ba, tratatzen aitu giñen. Noski gure familia batetik gero ezagunak eta, euskal mundu oso apurra, oso ixilpekoa baiña bazen.

4. Donosti elkartearen sorrera

- **Erref:** DON-125/005
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:09:48. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Donosti elkartearen sorrera, Amaran, euskara sustatzeko. Hitzaldiak eta txangoak antolatzen zituzten. Fermin Leizaola, Miren Egaña, apaolazatarrak... taldekideak aipatzen ditu.

5. Ez Dok Amairuren sorrera; bilerak

- **Erref:** DON-125/006
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Mikel Laboaren eskutik hurbildu zen Ez Dok Amairu izango zen taldera. Kursoalean eta Getaria kalean elkartzen ziren, baita Aurrera eta Iturrioz tabernetan, iriondotarren okindegian eta Laboaren etxean. Toki askotako jendea ziren.

6. Etxeko giroa: munduko kulturen elkargune

- **Erref:** DON-125/008
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Aitarekin diputaziora joaten zen garaiko kontuak. Jon Mirande, Isidoro Fagoaga... kultura arloko asko joaten zitzaizkien etxera, baita atzerritarrak ere. Oso ikuspegi irekia zuen aitak.

7. Ez Dok Amairuren filosofia eta Jorge Oteiza

- **Erref:** DON-125/009
- **Iraupena:** 0:05:17. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ez Dok Amairu. Euskal tradizioa gaurkotu nahi zuten. Bertakoa eta unibertsala uztartzen asmatu zutela uste du. Jorge Oteizaren ikuspegia eta abangoardia; kutxa metafisikoa eta hutsa. Modernotasuna.

8. Egarrriak eta iturriak bat, 60ko hamarkadan

- **Erref:** DON-125/010
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:25:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Egarrriak eta iturriak bat egin zuten 60ko hamarkadan. Argia dantza taldea, Jarrai antzerki-taldea, arkitektoak... denetik elkartu ziren Ez Dok Amairu n. Borroka garaia zen. Euskal kultura zerbait dekoratiboa izan zen ordura arte.

9. Euskal Deklamazioa eta antzerki giroa

- **Erref:** DON-125/012
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:25:21. **Bukatu:** 00:29:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Ez Dok Amairu aurretik, antzerkiak indar handia zuen Donostian eta berak ere parte hartu zuen. Euskal Deklamazioa eta Maria Dolores Agirre. Toribio Alzaga. Labaien. Antzerki kostunbrista zen. Etxebeste. Erdarazko antzerki-taldeak.</p>

10. Ez Dok Amairuren muina: garaikidea

- **Erref:** DON-125/013
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:29:09. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ez Dok Amairuren muina, edukia. Modernoa eta erabat garaikidea. Literatura. Baldintzak hobetzeko borroka. Euskararen malgutasuna: kanpoko integratzeko gaitasuna, muina galdu gabe. Gaur egungo egoera eta konplexuak.

11. 'Jarrai' taldea; abangoardiako antzerkia eta zinema

- **Erref:** DON-125/015
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:33:43. **Bukatu:** 00:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Jarrai antzerki-taldeak Living Theatre ekarri zuen Victoria Eugeniara. Antzerki modernoa, esperimentalak. Euskal kultura abangoardiakoa zen garai hartan. Sistiagaren zine esperimentalak. Ama lur. Pelotari.</p>

12. Mixel Labegerieren ekarpena

- **Erref:** DON-125/016
- **Iraupena:** 0:06:36. **Hasi:** 00:37:53. **Bukatu:** 00:44:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Mixel Labegeriek kantagintzan egin zuen ekarpena, Iparraldetik. Nemesio Etxaniz. La Voz de Españak antolatutako lehiaketan, Benito euskaraz kantuan. Euskaltzaleen Biltzarra. Labegerieren isilpeko kantaldia, Donostian. Lourdes Iriondo. Benito Lertxundi.

13. Familiako tradizioa jarraituz, medikua

- **Erref:** DON-125/018
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:44:54. **Bukatu:** 00:47:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Aita eta aitona medikuak zituen, eta berak ere bide bera jarraitu zuen. Iruñean egin zuen Medikuntza. Enpresa medikua izan da 30 urtez, Contadores-en. 'La Voz de Guipúzcoa'k antolatutako Agora saria. Xabier Lete.

14. Sorkuntza, debekuek baldintzatuta

- **Erref:** DON-125/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:48:03. **Bukatu:** 00:50:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gaztaroko bere poesia. Ez Dok Amairu sorkuntzarako ate bat izan zen, eta errealtatea ikusteko modua ere bai. Orduko egoera: kantariak debekatuta, zentsura... Oreka bilatzea zaila zen.

15. Siadeko eta Gaur taldeak

- **Erref:** DON-125/021
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:50:26. **Bukatu:** 00:52:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Siadeko eta hizkuntzari buruzko lanak. Gaur taldea. Txepetx, Sanchez Carrion; hark egindako ikerketa. Iñaki Larrañaga. Euskara elkarteen sorrera.

16. Bilboko Kafe Antzokia

- **Erref:** DON-125/022
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:52:48. **Bukatu:** 00:56:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1995ean, Bilboko Kafe Antzokia gidatzea eskatu zioten. Dinamika irekia zen.

17. Ez Dok Amairu desegin zenekoa

- **Erref:** DON-125/024
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:59:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Bere funtzioa, ardurak, Ez Dok Amairun. Nortasun handiko kantariak zeuden taldean, eta normala izan zen nork bere bidea hartzea. Politikaren eragina.</p>

18. Aranzadi zientzia elkarteko idazkari

- **Erref:** DON-125/025
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:59:42. **Bukatu:** 01:01:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Aranzadi zientzia elkarteko bazkidea zen, eta bertako idazkari nagusi izan zen zortzi urtez, trantsizio garaian. Ikerketak.

19. Aitatxi, Fermin Irigarai eta aita

- **Erref:** DON-125/027
- **Iraupena:** 0:05:48. **Hasi:** 01:01:24. **Bukatu:** 01:07:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Aitonak helarazi zion euskararen kontzientzia: Fermin Irigarai, "Larreko". Egutegi modukoa idatzi zuen gerra garaian, euskaraz. "Gerla urte, gezur urte". Aitaren kontuak; Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia.

20. Idazten nola hasi zen

- **Erref:** DON-125/028
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:07:12. **Bukatu:** 01:08:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>60ko hamarkadan hasi zen idazten. Euskara eta Nafarroari buruzko saiakera. Poemak. Etxeko giroak bultzatu zuen idaztera.</p>

21. Euskara, gizartetik ezabatua; La Salle

- **Erref:** DON-125/030
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:08:40. **Bukatu:** 01:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Umetan oso giro erdaldunean bizi ziren. Euskara ez zen existitzen ez eskolan eta ezta kalean ere. La Salle nahiko ikastetxe herrikoia zen, hala ere; fraide euskaltzale bat ere bazen.

22. Groseko giroa, nerabezaroan

- **Erref:** DON-125/031

- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:11:53. **Bukatu:** 01:15:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Groseko giroa. Pilota, lasterketak. Abenidan (Askatasunaren etorbidea) paseoan. Zinema. Orduko irakurketak.

23. Giro itogarria eta lehen grebak

- **Erref:** DON-125/032
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:15:24. **Bukatu:** 01:18:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Zinemako zentsura. Aste Santuko giro itogarria. NODOA, propaganda. Lehen grebak eta protestak. Tabakalera, esneketariak. Grisak eta manifestazioak. Lehen Aberri Eguna. Sindikatuak.

24. 70. hamarkadako giro gatazkatsua

- **Erref:** DON-125/033
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 01:18:09. **Bukatu:** 01:21:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

70. hamarkadako giro gatazkatsua. Eskola sozialak. Sorkuntzak eta politikak talka egiten zuten batzuetan. Kantagintza duintzeko lanak.

25. Taldean ez zegoen kontsignaririk

- **Erref:** DON-125/035
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:21:53. **Bukatu:** 01:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Ez Dok Amairu. Ez zuten kontsignarik taldean, baina politikaz hitz egiten zuten.

Transkripzioa

Bai, hori, guk ez genuen sekulan talde-konsignarik eta holakorik; alegia, guk hori, noski, ideologia bertsukoak giñen eta noski hori, eta gu tartean asko mintzatzan giñen, eta politikaz asko gaiñera diskutitzen eta abar. Baiñan guk ez genuen ez konsignarik ez ezer'e, ez?. "O sea", hori, ez dakit, norbera aski heldua zen eta batzuk joaten ziren manifik ziren ba presoak edo hau edo beste... Bueno, presoak orduan hasten ziren gaiñera, ez? Baldin bazen zerbait, hori norbera. Gero beharbada, horren inguruko solasaldia baldin bagenuen, diskutitzen genuen eta zer nolako ahuleziak eta zergatik egiten ari gara hau, zergatik gertatu den... Gu tartean, baiña pixkat gure pentsamodldea eta gure jarrera ere, ba, indartzeko eta sendotzeko, sendotu nahian behintzat. Ez, ez, gu [...] hori ez genuen, oso talde giñen, baiñan ez genuen taldekerian ere erori nahi, ez? Eta ez giñen gaiñera, ez zitzaigun okurritu ere egiten, ezta otu ere.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com